

Bandera pisuak, bandera arinak

B

ack to the light! Edo back to ARGIA, bederen. Hemen nauzue berriro, gure zirko mediatico euskofonoan orrialde intermitente baten jabe. Agur irakurle, eta kaixo Angel eta Jose Inazio. Pozik nator zuen artera, erritmo kolektibo honi egokitu eta zerbait berri edo pertsonal eransteko gogoz.

Ikurriñaz zeniharduten (ez larritu, *euskal aditz batua* ireki behar izan dut adizki hau ziurtatzeko) eta funtsera itzuliz, ez dezagun ahantzi ezer baino lehen sinboloa edo ikurra dela edozein bandera. Bandera nazionalari dagokionean nortasun nazionalaren ikurra dateke. Ez da hori beste bandera batzuen kasua. Esaterako, futbol talde baten bandera talde horren ikurra da eta taldearekiko identifikazioa sinbolizatzen du darabilen jendearengan. Honekin esan nahi dudana da bandera nazionalak baduela pisu berezi bat. Ez da gauza bera sentitzen Athletic-en bandera astintzean ala ikurriña astintzean. Nahiz batzuentzat Athletic taldea –bere fitxaketa politika nazionalista dela medio– euskal nortasun nazionalaren sinbolo edo ikur bihurtu den. Kasu honetan, esango genuke Athletic-en bandera ikur baten ikur bihurtzen dela, ikur karratua, nahiago bada. Hots, euskal nortasun nazionalaren ikur den futbol talde baten ikurra. Ez gaitu harrituko hortaz ikusteak San Mamesen bandera zuri-gorriak beste direla astintzen diren ikurriñak. Eta kasu batzuetan futbol taldearen banderan bertan txertaturik datorrela ikurriña, ala alderantziz. Ironia nondik datorren? Athletic-en bandera gure ikurriña nazionala baino zaharragoa da, herri zaharra baino nazio gaztea baikara.

Esan moduan, bandera nazionala beti da besteak baino “pisuagoa”. Zure gainean pausatuko diren begiradek egiten dute pisu ala arin bandera bat. Kirol talde baten banderarekin ibiltzeak mota guztietako begiradak erakar ditzake baina *tifosi sozjopata* gutxi batzuk kenduta inork ez dio bestelako garrantzirik emango kon-

DANI BLANCO



Ur Apalategi Idirin



Basterretxea

Errro

tuari. Bandera arinak dira hauek, zer duda. Ez da hala gertatzen bandera nazionalekin. Halakorik eraman duenak badaki norberarengan eragin emozional handi eta sakon samarra izan dezakeela, besteen begirada abegikor ala gaizto baina beti emozioz kargatuak biderkatu baino egiten ez duena. Eta nik uste alferrik dela postmodernitatearen pose indiferentea hartzea fenomeno

honen aurrean. Zeren naziotasunarekiko indiferentzia sentimendu *hautatua* izaten baita, prozesu indibidual baten ondorioa, eta ez zerbait naturala. Zorionez ala zoritxarrez, ez dakit, naziotasun batekin edo batzuekin gatoz mundura –kulturalak, jakina, ez biologikoak– eta ehunezko banderarik gabe ere hizkuntzaren bandera darabilgu egunero gure solasetan, baita naziotasunarekiko indiferentzia adierazten dugun uanean ere. Parkeen nabilenean seme-alabekin solasean, ingurukoek segituan identifikatzen naute darabildan hizkuntz-banderari esker –edo hizkuntz-banderarengatik–. Eta gertatzen dena da ezin naizela ingurukoei adierazten hasi euskaldun postmodernoa naizela eta naziotasuna bost axola zaidala. Ez. Beraiek nire ahoan euskara identifikatu duten ber, “euskalduna” bihurtzen naiz beraientzat, esentzia nazional baten ordezkaria, esentzia horri beraiek –eta ez nik, hori da okerrena– asoziatzen dioten konnotazio eta estereotipo guztien jabe. Euskaldunak terroristatzat badauzkate, niri ere tasun hori kutsatuko zait, euskaldunak langiletzat bagauzkate, halaber. Eta horretan ere ez dago berdintasunik: nazio loriatsuen banderak anitzez dira arinagoak nazio xumeenak baino.

Beraz, tamalez banderarik gabe ibili ezin gaitzekenez, gure borroka –aurretik galdua, noski– izango da euskaldunetz ez-euskaldunetz duten kontzeptua ahal den neurrian eguneratzea eta hobetzea. Gure bandera “eramangarria” izan dadin. *Prêt-à-porter* udatiar bat, aukeran, eta ez

Tamalez banderarik gabe ibili ezin gaitzekenez, gure borroka –aurretik galdua, noski– izango da euskaldunetz ez-euskaldunetz duten kontzeptua ahal den neurrian eguneratzea eta hobetzea. Gure bandera ‘eramangarria’ izan dadin. *Prêt-à-porter* udatiar bat, aukeran, eta ez

Erdi Aroko armadura zurrun eta zaratatsua